

MUNDUKO GORABERAK



Seaska eder sedaz jantzian nintzan jayo,
Baita lenengo urtea bere an irago;
Palagu eta eregu danak nituala,
Baña joan zan ango aldia bereala.

Aurrera bere bizi nintzan ni naikeretan,
Mizkeria ta ariguria gozoetan;
Beti gu izan giñealako eukitsuak,
Aberatsetan errian goren gorengiak.

Gaur baña zelan aurkitzen nazan oso pobre,
Enazalako lengo eukien baten jabe;
¡Ai! ezbearrak nebazalako izan asko,
Okertu ziran gauza guztiak niretzako.

Aldakuntze au mundu onetan ikustea,
Gach ingo jatan aldi batean sinistea;
Neure bizian egin ez arren ori uste,
Kolereari legez lagunak iges deuste.

Gaztezarroan alkarren kutun gu giñean,
Genbitzalako beti batera jolasean;
Eskolan bere ibilli giñan beti nasi,
Anaya batzuk legez giñean iya bizi.

¡O! baña oraiñ areik goi goyan ta ni beian,
Aurkitzen gara oso desbardin suertian;
Zeinbat alditan eurai jo arren nik atea,
Jaunak lagundu daizula dabe limosnea.

Albotik bere sarritan jataz iragoten,
 Senide urtzat len jatazanak autortuten;
 Jausi nintzanik ona ez deuste ein agurrik,
 Ezta zuzendu nire alderuntz arpegirik.

¿Baña pobretu arren, ondrarik galdu neban?
 ¿Ausaz au ez da len legez bizi gaur enegan?
 ¿Ausaz agurrik egin ez arren aberatsak,
 Neugan egoan azpiratzea zorigachak?

Pelotacho bat guztiz errez da biurtzea,
 Nais da etorri indar askogaz aterea;
 ¿Ñor da bada gizon argal ta gisajua,
 Atzeratzeko Probidentzia indartsua?

Edur artean egiten bada erabilli,
 Mokilia joan oi da egiñaz beti andi;
 Nire lagunak jarraitu dabe andituaz,
 Zeinbat zarrago diru geyago pillatuaz.

Eta ni barriz, asi ezkeru mallak galtzen,
 Lurra jo arte enaz gelditu beratuten;
 Galdu jatazan uste bagarik ondasunak,
 Ala ez dakit baziran bere chartasunak.

Ni nintzan legez, bizi danen bat jausitea,
 Gertau leiteke, ta kantuz ezin nasaitzea;
 Jausi arren nik, kanturik ezin neike laga,
 Naiz da negarrez ichi egiak esan бага.

Ez da ardura biotza illun euki arren,
 Berau dagoan aroan kantau nai dot emen;
 Egunak bere ez dira danak goi urdiñak,
 Batzuk argiak, besteak motzak desbardiñak.

Alanche bada errama baten soñuetan,
 Ez da choria ikusten egun guztietan;
 Batzuetan dau kantetan tantai gallurrean,
 Beste askotan lenengo daukan adarrean.

Entzun izan dot Jaungoikoaren lanbidea,
Eskellarak bai, dala egiten jardutea;
Bekoak askok igo dagien zeruraño,
Eta goikoak jatsi daitezcan lurreraño.

Ta niri bere gertatu bajat jatsitea,
Beste askori oi jakon legez igotea,
Mundu onetan beti dakusguz gora berak,
Suerte on ta charrak ezтира gizonenak.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

LA EXPOSICIÓN ETNOGRÁFICO-HISTÓRICA EUSKARA DE SAN JUAN DE LUZ

(Agosto-Septiembre de 1897)

VII Y ÚLTIMO

Bellas Artes.—Música

Durante el Congreso etnográfico de San Juan de Luz, la «Schola Cantorum» de dicha villa, que tan hábilmente dirige el señor abate Flement, dejó oír, tanto en la iglesia como en el salón de fiestas del certámen, las más selectas é inspiradas piezas de las sencillas cuanto sentimentales composiciones gregorianas y palestrinianas.

La presencia en dicha Exposición de varios de los porta-estandartes que dirigen en Francia la reforma musical, que con tanto interés y entusiasmo patrocina S. S. León XIII; de ilustraciones artístico-religiosas como el benedictino Dom Mocquereau (el émulo y amigo de Dom Pothier); de Charles Bordes, del organista de Burdeos Doney, etc., ha servido para que tanto en las audiciones como en las conferencias, se haya palpado que dicha reforma, no obstante las grandes dificultades rutinarias con que lucha, se impone y ha de triunfar al fin, pues no hay ni puede haber música más seria, sentimental y apropiada para el